


ZAR

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
3n. ZENBAKIA

URRILLA
— 1977 —

KOILI- YMEVSKALDVNEN EGYNA 1977

urrillaren 9-an
Bilbao-n



- 10 -etan MEZA S. Anton-en
- 11 .. KALEZ KALE Urizar-en zear
- 11,30 .. ALKARTZEA Arenal-en
- 12 .. IBILKUNDEA Gran Vian zear
- 2 .. BAZKARIA Faria de Muestras-en
- 3,30 .. JAIALDIA Faria de Muestras-en
- 7 .. AGUR JAUNAK

URIZAR-en
(Zazpi Kaleetan)
Meza ta Kalejira alala

ARENAL-en
Zazpi lurraldeetatik datozen gaztetxoel
Itzalezko errera

GRAN VIAN ZEAR
Uma ta gaztetxoan sekulako ibilkundea,
txistu-otsez, abestiz, dantzaz, pankartzaz... eta abar.

FERIA DE MUESTRAS-en
Bazkaria, Ondoren, jaialdi zoragarria,
Sariketak, leiaketak, txapelketak... joko ta ikusgarriak.
AGUR JAUNAK

EUSKERAZALEAK

ZER'en bigarren zenbakiko nire lantxu apala, Zeanuri'ko Oleaga jaunaren izenagaz amaitu la gillzatu neulzuen, eta zenbaki onetara be, beste Arraliar bal dakartzuel: Fernando Zubizarreta Ifiita.

Fernando au, Igorre'n jaioa la bertakoen artean bertan azia dogu, baiiaa euskararenganako zaletasun-garrik iñoiz agiriratu bakea, EUSICERAZALEAIK'tan burukide izana.

Arri gogortzekoa?

Ez! & gaitean arrilu!

Euskerazaleak soiudo zait aldi aretan, agertzen ziran o, lopo la beat arriak alderatuz, bideak leundu, errezln ta aurrera joteko berebiziko gizona izango zan, ziur asko.

Gaur-egun, bere izenik bazkide-izendegian be ez da agiri, baina barrulikoa eta burukide izan zanean berari egokion eginkizuna ondoren txarrik barik bete eta burutu ebalako, emen doakio nire aldetiko errikide-agur gartsua.

.....
Colon de Larreategi'n 14'gn.alean ikusten dogun sartu urtenak, txiintritegia dirudi. Ikasleak eta ikasle-gaiak gora ta bera ugari dabiltz. Ikas-urte barria da.

.....
Azken-urteetan Bizkai— euskalkiari garri-azurra makurtu arazoten ibilli diranen ekiñak eta indarrak txantxelakoak ez dirala izan, danok dakigun zera da, baiña jakin bear dogun beste zera emen: Bizkaierak arrakasla andia dauala.

LANDAJUELA'tar A.

ZER DA:

Arrakasta?	— Maitatua edo billatua izateko zioa. Neska orrek arrakasta aundia dauka.
Berein?	Asko. Mendi orretan berein il izango dira.
Darraiala?	— Jarraitu dagiala.
Zioa?	— Errazoia. Au zala zio, asarratu ziran.
vlusin?	Biotz-bera, itun, barru-minduta. Ume gaisoa musin dabil. Musin egin, gorrotoa artu.
Eretia?	Erea cdo aldi egokia. Txalupak talapean eretia artu bear izaten dabe.
Erkia?	Erriaren zatia, errialdea, eskualdea.
Barrutia?	Lurralde esitua abereentzat edo landarentzat. Aginpide-tokia.
Gudaloztea?	Gudari-taldea.
Ikurtona?	Ikur donea edo ezaugarri santua, sakramentua.
Zurbilla?	Idargca edo margo belllegiduna.
Soindu?	Sendo biziten asi, gorputza artu.
Gentza?	Bakea.
Ditantso?	Itandu dautso.
Ildegia?	Illak egiten daben taldea, illerria edo «ortu santua».
Lubakia?	Lur-azalean, zearka, gudarien gordcleku ta babes izateko egiten diran zulo ta bideak.

ABERRIA TA BATASUN.

BATASUNA BEAR DOGU

Gaur-egun, asko aitatuten da batasuna eta zori txarrez ez daukagu batasui edo iñoz baiño gitxiago daukagu. Izan be, bearrekoa dan gauzea asko aitatuten Euskaldunok gitxi gara, beste aberri asko ta asko baiño txikiagoa da gur

Eta gitxi izate onek batasunaren bearra agertzen dau. Beste alde batetik arerioak ugari daukaguz: Batzuk agiri-agirian eta beste as erdi-ixillean edo ezkutauta. Arerioak izan ditu gure lurak eta alde guztietatik k. dairan zear zatiak kendu dauskuez. Arerioak gure izkuntzak, eta eguneroko bonl ketea daukagu eskoletan, urrutikuskiñean, irratian, kalean... Arerioak gure ondasun, eta egunoro erritik kanpora eroaten ditue gure izerdiaren frutuak.

Arerioak ain ugari daukazan erriak, here barruan batasunik ez ba'dauka, 2 duta dago. Eta— ba daukaguz euskaldunok alkar artuta biziteko zioak ugari. Es dagigun ha, batasun ori!

* * *

ZERTAN BATASUNA?

Euskaldun lez gure batasunaren oiñarria, Aberria, Euskalerrria da. Orretan daukagu hanatzerik ez zatitzerik: Aberria maitatu, here alderdi onak indartu, hi erritarren batasuna ta bardintasuna billatu, here jakintza sakondu, arerio guztiakan a zaindu, lagun guztiakaz alkartu.

Batasuna egin hear dogu, baita geure euskeran be: Euskerea ta here euskalki; al danik geien, ezagutu, beste euskalkietakoak ulertzeko eran berba egin, hestee onartu ta geureagaz alkartu.

* * *

ASKATASUNA TA BATASUNA

Baiña gai asko eta asko dagoz, berez batasunik eskatu barik, askatasunera hide zabala izten dabenak.

Esaterako, politika-gaiak, askatasun gaiak dira, oiñarrian izan hear dan hard tasuna ta alkarren itzaltasuna kontuan izan ezkeru.

Ezin dogu aiztu une onetan Donostia'ko jazoera mingarria. GOIZ-ARGI'n i kurri doguna datorku gogora:

«GURE ERRIAREN KONDAIRAN EZ DA GAUR ARTE GERTATU
«ERRI-NAIAREN EGIAZKO ORDEZKAIERI
«EUSKALERRIKO KALEETAN MUTURREKOKA ERASOTZEA,
«1977'GO IRAILLAREN 8'AN,
«EGUN GOGOANGARRIAN, GERTATU ZAN BEZALA
«EUSKALDUN ORREK, ETZAZULA AAZTU!
«ETA IKASI AURRERAKO!

ANTXIÑAKO BERBAK

Batasuna ta askatasuna alkartzea ez da iñon erreza izan. Antxiñako berba batzuk datorkuz gogora:

Bcarrczkoetan, batasuna,
Eritxizkoetan, askatasuna,
Guztietan maitetasuna.

GAURKO ARAZOAK

GIZA-ESKUBIDEAK

AGINTARITZA ERRITIK

Erriaren guraria da, agintari - almenaren oiñaari.

Erdi-Aroan ez euken olako eretxirik.

A gintaritz jaungoikoagandik etorrela eta agintari-almena eukenak bakarrik egin leikezela legeak, uste eben. Eta beronek bakarrik eskubideak emon be.

Eleizeak «Bakea Lurrean» enzi.klikearen bidea, zabal-kiro onartzen dan gaurko erri-demokraziaren eritxia.

A gintaritz jaungoikoagandik etorri arren, erriko gizon bakoitxak gobernua antolatzeke ta agintarien mugak erabagiteke eskubidea izan leikela diño.

VIRGINIA'N ETA PRANTZIA'N

Gai onetan, lenengo agerpenak Amerika'tarrak dira.

Virginia' ko agerpenak, 1776'ko bagillaren 12'an, diño:

«Gizon guztiak, izatez, askeak eta buru jabeak «dira, eta gizaldien etorkizunak kendu ezin leikiezen berezko eskubideak daukez.

«Eskubide oneik dira: Askatasunerako ta bizitekoa ta zoriona ta ziurtasuna eskuratzekoa».

Baiña bere zabalkundea aundiagoa izan zalako, oiñatz sakonagoa itzi euskun idatzia, 1789'an Prantzia'ko Batzarrak onartu eban «Gizon eta Erritar-eskubiden Agerpena» da...

* * *

GIZARTERAKO BARDIÑAK

Gizonak, jaiotzatik, euren eskubideetarako askeak eta bardiñak dira. Eta gizarteak agiten dituan bereiz-kundeak, ezin dira izan guztien onerako bearrezkoak diranak baiño.

Politika-alkarte guztien elburua, gizonaren eskubide ezin-kenduai irau-ajotea da. Eskubide oneik, askatasuna, jabetasuna, ziurtasuna, ta zapaltzerik ez izatea dira.

1948'ko abenduaren 10'ean, O. N. U. k obeto argitu zituan bakoitxaren eta gi/arte aldetiko eskubideak: bizirako, lanerako, asiera ta eziera obarako...

ESATETIK IZATERA

Benetan ederrak agerpen orreitako irakatsiak!

Baiña esana ta izana ez dira beti batera etorten!

Orregaitik, agindu orreik iñoz bete diran itanduten ba'dogu, ondo egiten dogu.

Eta zori txarrez, ez dirala bete erantzun bear! Pirri-parra ausiak eta zapalduak dirala autortu bear!

EZ MORROIRIK, EZ OÑAZERIK !

Esaterako, eskubide orreïn artean, auxe agertzen da:

«Iñor ez da izango morroitzaren buztarripean».

Eta ba dakigu zenbat morroitz izan diran ordutik ona! Gaur be ba dira, eta ez laterri atzeratuetan eta irugarren munduan bakarrik, erri aurreratuetan be bai, batez be guda-aldietan.

Beste au be esaten zan:

«Iñork ez dagiala artu miñik, oiñazerik, edo neke, biotz-zatarkeri ta gogorkeririk».

Eta ez dago esan bearrik be, zelako gogorkeriak egiten diran giza-kondairan eta gaur berton! Sarritan, gozonaren biotz gogorra noraiño eldu leiteken ikusiaz, ikaratuta geratzen gara!

LETONA'k

ENEKO ARITZA

Gure kondairan garrantzi aundikoak izan dira, Erriak aukeratutako jaunak.

Arerioen aurrean erriko guda-indarrak alkartzeko sortu ziran, eta asieran beintzat euren elburu bakarra gudaiburu onak izanaz, arerioak azpiratzea zan.

Geroago beste eskubide batzuk be emon eutsezan euskaldunak euren jaunai.

Baiña jaunak arrisku biurtu jakuzan.

Euren aunditasuna ikusirik eta, goi-goitik, demokrazi barik, erriak alkartzeko bide lez, artu zituen inguruetako erregeak.

Orrelan: Bizkaï'ko Andra Juana Manuela, Kastilla'ko erregeagaz bat egiteko bide, eta Iparraldeko Enrike III^a, Paris'ko Enrike IV biurtu ziran.

Batasun ori, lege zarrak zinezten zirala egiten zan, baiña ortik sortu ziran fueroak eta ortik gure ondamendia.

Eneko Aritza gizandia dogu Naparroa'ko lenengo jaun eta erreñuaren sortzaille.

ENEKO GUDALBURU

i\rerio amurratuz inguraturik bizi ziran IX gizaldiko euskaldunak.

Iparralde'tik Karlo \Iagno ta aren ondorengo Ludobiko Pio zitalak.

Ego-aldetik Malioma'ren seine gogorrek eta gero Kristiñauen erreñu barriak.

Euskaldunak Karlo Magno'ren mutil ospetsuak apurtu zituen Orreaga edo Roneesvalles'ko zelaian, 778'garrcn urtean, Andra

Mari egunean. Datorren urtean ospatzen da amabigarren gizaldia.

Baiña Frankoak euskaldunai crasoka luzaro jarraitu then.

Alako burruka baten galdu eban here bizia Ximeno, «Baskonia'ko dukea» eritxon Iparaldeko buruzagi euskaldunak.

Aren seme Eneko Aritzak Ego-Euskalcrria'n gorde eban, orduan, here burua eta Euskalcrriaren eta here aitaren ordaiñak artzeko gertatzen asi zan.

Leire'ko lekaide jakintsuen ikasle jarri zan, lenengo.

Erronkari'ko artzain gogorakin gudaritza ikasi eban, gero.

Eta Euskalcrriko buruzagirik beñenakaz inguraturik, Frankoai erasoka asi zan.

Frankoen errege zan Ludobiko Pio'k mutilik bizkorrenak batu zituan eta Eneko'ren aurka etorri ziran.

Orreaga'ko mendi-artean itxaron eutsen Eneko'k, eta arcin

gaiñera jausirik, guztiz ondatuta itzi zituan.

Orrcaga'ko bigarren burruka onek, 46 urte lenago izan zan besteak baiño entzute gitxiago izan dau idazleen artean, baiña garrantzi aundiagokoa da : Orduantxe, ain zuzen be, sortu zan Naparroa'ko erreñu euskalduna.

* * *

NAPARROA'KO ERREIÑUA

Euren ibar eta barrutictan bananduta bizi ziran ordura arte euskaldunak.

Inguruko arerioak euren mugetara sartzen ziranean baiño ez ziran alkartzen.

Eta orduan, buruzagirik bizkorrenaren agindupean, erasoten eutsen arerioai.

Orrega'ko bigarren gudaldi au amaituta, euskaldunak Encko izendatu eben buruzagi betiko. Onek ez eban errege izenik artu, baiña bai bere ondorengoak.

Erreiñu barri au, lengo ibar eta barruti zarren batza edo «konfederaziñoa» baiño besterik ez zan, eta lengo Lege Zarren eraura bizi ziran naparrak.

Amabi jakintsu zarren batzarra zan erregearen onulari.

ENEKO AGINTARIA

Ogei ta zortzi urtean izan zan Eneko agintari.

Frankoakaz eta Mahoma'tarrakaz guda asko egin bearra izan eban.



LEIRE'N AZI ZAN ENEKO ARITZA

Gudaldirik ospetsucna, Mahoma'tarren buru zan i- bderraman II'agaz izan eban.

Cordoba'tik etorri eta Iruña'ko ateetaraiño sartu ziran abiadan, baiña emen Encko'k gudaroztea zapaldu eta here erria zaindu eban.

*

POLITIKALARI TREBEA

Uririk arrikutsuenak arresi edo orma sendoz inguratu zituan. Esaterako: Aibar, Kascda, Gallipienzo, Uxue...

Mugctako gizonen buruzagiak, ezkontza - bidez beraganatu zituan.

Esaterako, bere bigarren alabea, Jaka'ko buruzagiaz eta alaba nagusia Muskaria edo Tudela'ko Muza'gaz eskondu zituan. Muza onek odolez arabiarra izan arren, euskaldunen alde jokatu eban.

* * *

KULTURA - ZALEA

Oso entzute aundikoak izan ziran aldi aretako lekaide-etxeak, esaterako Leire, Zilbeti, Urda-xapal eta Armentia'koa.

Garai aretan, Cordoba'ko Eulojio Santua etorri zan Naparroa'ko lekaide-etxeak ikustera eta auxe diño:

«Eundaka praille santu ta jakintsu **dira lekaide-etxe** orreitan.

»Berton irakurri leikez eleizako gurasoen liburu asko eta Erroma ta Grezia'ko idazti ederrak.

»Kristo'k irakatsitako maitetasunean bizi dira, eta apal eta maiteki zaintzen dituc bertara joaten diran ibiltari ugariak».

* * *

GAURKO EREDU

Gure gaurko aldi onek ba dauko Eneko'ren aldi aren antzik naikoa.

Ez gagoz areriaz inguratutik eta buru-jabetzaren billa?

Baña zelan jokatu orretarako?

Zelan eratu buru jabetza ori?

Ba daukagu nun ikasi, aldian aldiko zertzeladak kontuan dirala.

URKIOLA'k

IZKUNTZE A-UNIBERSITATEA

LENENGO OINKADAK

Ba dira iru urte euskereatzaz AGUR asterokoan idatziz nebala, batez be orduko Sendiko Latetxe-Aldun napatarra zen Jesus Emonda Garaikoetxea jaunak euskerearen eta berebat Errialdeen berezitasunen Ira.kas.kintzaz, Españiar Araudi la Lege Batzarrari eskari zeatz, garbi bat egiten entsola adiera.ziaz.

Españiar Lege-Batzarrak egin eban zertxobait orduan Euskera arazo au azalduaz eta orrela pitin bat aizatua:

Lenengo urratza emonda egoan.

ALDIAK ALDATUEZ

Egungo egunean aldiak aldatue.z doazala esan geinke, ikastolak ugaritu jakuzala, to ikastoletan ezere berein akademi, ikastetxe, hanketxe, la Bilbo'ko ikastetxe Nagusian to bardin gure «Euskera-zaleak»en be euskerea emon oi dala. Apai-zgaitegian zer esanik be ez.

Ori be ez da naikoa.

Elebilasuna bear dogu, nine ta lxikiengandik asitako elebitasuna.

Prantzaz eta Ligles izkuntzakaZ egin daroagan bezelakoa gitxienez.

Euskalerrian euskereak, gitxienez, gaztelered'i dautsola darraiala.

AMETSA BAKARRIK ETE DA?

Gaur egun asko be asko asi dira euskerea ikasten eta ikastaroa amaitu orduko % 20'ren bat edo bakarrik dira burutu oi dabena.

Tioak?

Nire uste apalean, lenen eta beinena, euskerea ikastea derrigorrezk oa ez izatea, Ofizialki beartu-azoa ez izatea.

Ikasle geienak pozik asi arren laster Galen aspertu oi dira, ta onez gain, euren ik aslaroan beste gal batzuk erabilli darabillez, eta gai onein azlerketak diralata, euskereari sarritan musin egia dagioe la betiko edo beste ereti baterako baztertuta itzi oi dabe.

Olan, batxiller-maillako ikaspenak eta lanbide-erakunde-koak, batzuk altatzekotan, beti leentasuna dauke.

M M

OFIZIALTASUNA TA UNIBERSITATEA

Euskaltzaindiak egunotan Euskal- Unibersilate Dis edo Barrutia eskatu dautso Madrilleko Jakintza Ministerit.yari.

Lentxoagotik erabakia euken, baiña Aita Villasante'k Iruñean egindako azken-batzarrean izenpetu dau azkenik.

Gaur egun Unibersilate-Barruti au Bilbo'k bakarrik dauko, eta Bizkai'rako izanik atan be, beste Euzkadi egoaldeko iru erkiak kanpotar ba.rrutietaz sartu oi dira.

Orain ba, Euskaltzaindiak Ministeritzari eskatzen dautsona da: Bizkaia, Gipuzkoa, Araba ta el aparroa, lau Euskal-Errialdeak; Unibersilate Ba.ruti bakar bat lauron artean osatzea.

Iruña Uriburua lez artuko leukie guztiok.

EUSKAL-ALDUNEN LANA

Euskal-aldunak be lanean dabiltz.

Kultura saillean sartu diranak Inigo Agirre (idaz Jose Antonio Maturana, Enrike Iparragirre, Federico Zabala, Ignazio Oregi, Juan Etxebarria ta Goio Monreal jaunak dira.

Onein lana be euskerearen koofizialtasuna ta Euskal-erriko Unibersitate Ba.ruti bakar baterako argibide ego da.

Guztion artean gure euskera gaixoari bultzakada garrantzitsu bat emoten gabiltzala deritxat.

Usteak ez dagiela ustel urten.

ARREGI'tar Josu'k

ERRI-ARNASA

IZADI - OLERKIA

Solozabal'dar Paulin'ek beste liburu bat argitaratu dausku, ERRI-ARNASA idazpuru dala.

Olerki-liburua da.

Gure Paulin'ek olerkietara jokera bizia dauka. Orregaitik, noizean bein liburu barri bat eroaten dau gure liburu-dendetara saltzeko ta zabaltzeko.

Bere lenengo olerkia, izadi-olerkia zan eta izadiko edertasunak abesten zituan, batez be URRE-BITZA idazpuru dala atera eban liburuan.

Munduaren edertasuna asmoan eban olerkariak liburu orretan. baiña olerkaria izateko ez da naikoa asmapena. Olerkariak irudimena be bear dau eta, batez he egun zoragarri aretan asmau iban edertasauna bestcai erakusten jakin.

Ori egin eban batez he lenengo liburuan.

GIZARTE - OLERKIA

Baina-gero, irakurleak olerki ori txai-roa zala esan eutselako edo. Paulin'ek beste bide bat artu eban: Gizarte-olerkiarena.

Ortik sortu van, batez be, salakuntza-olerkia.

Bide labana au benetan! Olerkaria, igarle biurtzen dauana! Baiña emen sendotasun aundia bear, erriari edo erritar batzui entzun gura ez dabena entzun azoteko! Batez be egia esatea zigortuten zan aldi Iarri aretan.

Irudi-bidez egiten eban Paulin'ek igarle ta olerkariaren lan an. Orrelan, ulertu bear ebezanak bakarrik ulertzen ebezan here olerkiak eta ulertzaille orreik ez ziran salatuak, salatzailleak baiño.

BIETARA

ERRI-ARNASA'n gizarte-olerkia ta izadi-olerkia alkartuta agertzen dira.

Ori liburu onen edozein orrialdetan agertzen da.

Artu dagigun zatitxu bat:

XABIER ETA EDURNE

*Arbola santuaren gerizpe ontatik
agur samurra danoi biotz uretatik.*

*Egun ederra dogu, gaurkoz ospatuten,
eta era berean bizi zaiinduten.*

*Gernika'ko wian biotza daukagu,
arbola santu ori maitagarri jaku.*

*Pozaren pozez andra maitteenak
adurrez, ikusirik alkartuta umeak.*

*Erriaren barruan maitasuna dago
urea bera baiño askoz ederrago.*

*Egunak egunari argia dakartso
lagunak lagunari egia dirautso.*

*Lorarik ederrera norbere umea,
beraren sorrera da maitasun urea.*

*Ekaitz artean, ziur, laguntzaz estutu,
zuen maitasun garra larrosa gorritu.*

EUSKEREA

Zabal dabil, Bizkai'ko euskerarik onena or Markiña-aldean egiten dala.

Baleiteke.

Paulin'en euskerea. beintzat, ondo garbia ta ederra da.

Ulertzeko gatxa dala be, esango dau baten batek, baiña ori diñona euskeran larregi sartu barik dago. Euskerea landu dabeneztat, Paulin'ena oso argia ta ederra da.

ITZ NEURTUZ ETA AZKEN - BARDIÑEZ

Azken-urteetan olerkariak bertso askea eurakandu dabe: Neurri barik eta azken bardin harik.

Paulin'ek be izen dau olakoa tentaldia, baiña orain barrero neurri zeatz eta azken-bardin garbietara jo dan.

Olerkiak orrelan adorea artzen dau.

Artu ha. irakurle, eta irakurri. Atsegindu zaitetz euskerearen eta olerkiaren ederrasunez.

OLAZARtar Martin'ek



EUSKERAZ EGIN

Aurreko zenbakian zerbait azaldu neban gaia apur bat osotu edo biribildu egin gura neuke gaurkoan. Labur-labur.

Asko/gitxi ondo cralbiteaz niarduan. Argibide batzuk ezarri nituan, bikote ori noz ondo eta noz txarto erabilten zan irakurleak ikus egian.

Bikote ori darabilgun esakuntzak, baiña, gazteleraz bcrezten ez diranez, **hemos estado mucho tiempo en este pueblo**, esate baterako, eta **yo quiero mucho a mis padres** eta abar esan oi danez, euskeraz be, gauza bera berbazberba itzuliz, erri onetan denpora **asko** egin dot eta nire gurasoak **asko** maite ditut eta onclango erderakada aundiak (erdelkeria utsak, obeto esanda) txitean-pitcan entzuten doguz.

Asko-gitxi bikotea noz erabil daiteken? Numcralekin, edo zcnbatu daiteken gauzaren bat izan ezkeru, **asko gitxi** ondo dator. Ogerlekoak zenbatu egiten dira (ogrerleko bat, hi, sei, amar, eun...), gizonak, umeak, etxeak, urteak eta abar he zenhatu egiten dira (gizon bat, host andra, ogei urte, berreun ctxc...). Kasu onetan, beraz, **askolgitxi** utsik barik erabil daiteke. Gizon **asko** etorri da, andra **askorik** cz da plazan agiri, erri onctan ume **gitxi** dago, ogerleko **asko** daukat etxean, etxe zaar **asko** dago auzo aretan...

Beroa, baiña, denporea, argia, ura, indarra, adiña (cdadca) eta beste ainbat eta ainbat gauza cz dira orrelan zenbatzen. Ez dogu bero **bat**, **lau** denpora, **amar** otz, **ogei** indar eta onelakorik esaten. Onangoctan, beraz, euskera jatorrez berba egitea nai izan ezkeru, ezin **asko/gitxi** bikotea erabilli, gazteleraz alan esan arren. Beste joskera edo esakuntza bat eskatzen dau gure berbeteak.

Sarritan **aundi/txiki** bikotea erabilliz cuskeratzca ederto etorriko da; beste batzuetan, barriz, beste era bat izango da bearrezkoa, zertaz diardugun gogoan arturik.

Bero **aundia** egiten dau gaur, erreka onek ur **txikia** (ez **gitxi**) daroa, gazte onek indar **aundia** (ez **asko**) dauko... Umea **oso** (ez **asko**) larritu zan (se apurd mucho), denpora **laburrean** (ez **gitxian**) egingo neuke lan au...

En esta casa hay mucha /poca luz esaldia cuskerara itzultzeko, adibidez, batzuek etxe onetan argi **asko/gitxi** dago esango dautsue gure egunotan. Erdclkeria utsa! Ken ortik! Argi **asko/gitxi** esateak, gaiñera, **hay muchas /pocas luces** (numero) adicrazoten dau, ezelan be cz gaztelcrazko **intensidad de luz** dalakoaren esangurea. Etxe onetan argi **aundia** dozu, **txikia** dozu, ederto esanda.

Asieran ekarri doguzan csaldiei gagokiezala, erri onetan denpora **luzea** egin dot ondo legoke. Gurasoak **asko** maite ditut crderakadcaren orde, **maite-maite** edo oso maite ditut esango bazendu, berba askoz obeto egingo zenduke. euskeraz.

Eta amaitzcko, or doakizu galdckizun edo jakinkizun bat. **La próxima semana te dare mucha ocupacion** eta **este joven anda mucho todos los dias** esakuntzak cuskerara zelan itzuliko zendukez, irakurcle orrek?

Zelan? Ez noakizu esaten. Zcuk asmau eta zeure buruari zcuk erantzun.

Urrengoan emongo nik neurc erantzuna.

KILI-KIL

11 onen 9'an Kili-Kili ta C'mc Euskaldunen eguna ospatuko cia Bilbon lenengoz.

Gaur, gugaz alkarrizkctan Retolaza'tar Jose. Antonio Kili-Kili'ren sortzaille ta zuzendaria dogu.

ZER DA KILI - KILI EGUNA?

Zergaitik egun au?

- **Ume euskaldunak goratzeko eta gure Bilbo onetan ume euskaldunak ha dirala agertzeko.**

York eratu dau?

—**Kili-Kili izenez, ume-alfabetatzea daroen arduradunak.**

— *„Nori dei egiñaz?*

Lenengo ta bein Kili-Kili umeei ta gero ume euskaldun guztiai.

Igaz onelako jai bat egin tian Mungi'n, ba dauke Zer ikusirik igazkoak eta Bilbokoak?

—**Mungi'koa ume jaialdi bat izan zan, Mungi'ko Kili-Kili taldeak asmau eta eratuta, Bizkaiko Kili-Kili umeentzat.**

Aurtengo Kili-Kili eguna edo ume euskaldunen eguna lenengoa da.

URTERO EGINGO DA

—*Urtero egiteko asmao?*

—**Bai, urte bakoitzean errialde ezbardin batean, txandaka.**

—*Aurten zer dalata Bilbon?*

Kili-Kili berton sortu zalako.

—*Zenbat ume bilduko dira?*

--Gatxa da erantzutea, neuk jakin gura neuke ori. Igaz Mungi'ra 5.000 ume joan ziran Bizkai'tik bakarrik, ona geiago etorriko diralakoan nago.

--Gastuak aundiak izan. dira?

- **--Izango dira, jakiña, baña gastu aundi bat kendu dogu, «Feria de Muestras»koak duan egin dauskuelako eta benetan eskerrak emon bear dautseguez.**

Aurten, Kili-Kili barruan zenbat nine dagoz?

—**Ondiño eztakigu ziur baña 16 bat milla izango dira.**

EGUN ORRETAKO EGITARAUA

^aialdia zelakoa izango da?

- **10'etan meza bat San Antonen, zazpi-kaleetatik zear kalejira, Arenalean beste probintzietatik datozen umetxoakaz alkartuko gara gero Gran Via'n zear ibilkundea, ibilkunde orretan «pankartak» eta ikurriña agertuko dira baita tanborrada-taldeak, dantzariak, soñulari ta abar parte artuko dabe.**

«Feria de Muestras»ko lautadan edo zelaian danok alkarturik bertsolariak arrera emango dauskue.

Gero bazkaria, bazkal-ostean jaialdia. Jaialdian lau gai erabiliko doguz arratsalde osoan:

Kultur gaia, joko ta kirolak, dantzak eta soñu ta abestiak.

—*Beraz, oso jaialdi ederra izango da ez?*

—**Alaia bai, baiña indarra kultura arloari emon gura dautsagu.**

—*Zergaitik?*

I E G U N A

Kili-Kili joko aundi bat izan da beti, baña joko ori euskera ta euskal jakintzaren serbitzurako izan da.

SARIKETE A

Zelan beteko dozue gai oil?

Umeai era emongo dautsegu euskera ta euskal jakintzaz dakiana agertzeko.

—Epaille batzuk izan bearke dira umeen lanak zuzentzeko?

Bai, host edo sei epaille egongo dira bertan, bata euskerarako, bestea euskal-literaturarako, edestia, lutelestia ta abar.

Umeak bertan emongo dautseguzan orriak betetuz agertuko dabe eurak dakiena, ta sarituak izango dira.

Sari asko izango dira?

Bai, baña bertan ez luzatzeko ta jendea ez aspertuteko oso sari gitxi bananduko dira, arlo bakoitzean txapeldun geratzen diranai bakarrik.

Ezparauak noiz eta zelan jasoko dabe euren saria?

Kili-Kilik diru-antzera txartel batzuk argitaratuko dauz, Kili-Kili kutxa bat sortzen da egun orretan. Saria artzen ez daben umetxoai onelako txartel batzuk emongo dautseguz, gero ume bakoitzak aukera izango dau txartel bakoitzari dagokion saria lortzeko.

Baita zelan jakin zer sari dan eta nun artu?

—Ba, Kili-Kili aldizkari barrian, zerrenda batzuk agertuko dira txartel bakoitzagaz jaso leiteken sariak eta zuzenbidea adieraroz.

ALDIZKARI BARRIA NOZ?

-Ba^a, orain aipatu dozun Bili-Kili aldizkari edo errebista barri ori noiz atara dozue ba?

Egun orretan, urrillaren 9'an aurkeztuko dogu aldizkari barri ori.


Kili K li sariketan .vartceko, edo ili aldizkari barria artzeko menak nun emon bear dira?

«Feria de Muestras»en toki berezi bat egongo de orretarako bakarrik.

Kili-Kili eguna, ume euskaldunen eguna ta, zergaitik ez? EUSKERAREN EGUNA. AMilla. esker Jose Antonio ta aurrera gogor!

Gure aldetik egun zoriontsu bat opa dautsegu euskaldun guztiei baña Datez he umetxoai eta onen artean Kili-kiltarrai.

ZANGRONIZ



APOITA'TAR BENITO GUDARIEN KAPELLAUA

Gaur nigaz Apoita'tar Benito apaiza daukat, guda-denporan Arana Goiri batalloian kapellaua izandakoa.

Alkarrizketa labur onetan bere bizitzako edo, obeto esan, bere gudarozteko jazoerak ta oroigarriak astinduko doguz.

Gure Aita Benito'k 37 urte daroaz kanpoan abade lez eta egun oneitan gure artean, berak maitatzen daun lurrean, aurkitzen izan da.

—Aitu, On Benito, zer dala to etorri zara Euskalerrira?

—Dakizun lez *ni* guda-denporan Arana Goiri Batalloian izan nintzan gudariakaz kapellau bezela Saibigaiñen.

Euretatico batek, Asensio Uriak komandantea ain zuzen be, esku-titz bat bialdu eustan da onillaren 21'ean gure batalloiko atzarra izango zala adierazoz.

Ori dala ta nire etorrera erabagi neban, egun orretan lengo adizkide ta lagunen artean egoteko.

Gudarozteko lagunak zu ikustean zer esan eten?

Ba 40 urte, 4 illabete ta 7 egun igaro ta gero arrituta geratu ziran ni ikustean.

Iñoiz ez dot ainbeste bider Don Benito izena entzun!

A, aizginlza ikurtona noiz artu zenduan.'

—1935'eko irailaren 15'ean.

Saibigaiñel, o burruka gogorra izan zan?

—Bai, lagun asko it ziran eta zaurituak ere pilloka izan ziran.

Gogoratzen naz egun batean jenderik geiena zaurituta egoan; orduan, ondo aurkitzen ziran gudariak artu nebazan eta tontorrera igon genduan, gaillurrean, gure gudariak lerroan jarri ziran eta sarritan egiten eben lez tiroak txandaka botatzen ebezen, olan egiñaz talde aundi baten antza genduan.

Zorionez, arerioak ez ekian berrogei bat bakarrik giñala.

Arana Goiri Batalloiko apaiza izendatu ninduenetik, ez nebazan iñoiz gudariak laga ta eurakaz egon nintzan lubakietan, ba'da ezpadan, baten batek azken sakramentuak bear ete ebazan.

—Arana Goiri Batalloiak atxilloturen bat it eban?

—Ez, bat be ez.

—Giltzapean egon zara?

—Bai, Santoñan 4 illabete, gela batean 7 lagun giñan eta lau illabetean aspil batetik jan bear izan genduan ixurkaia zanean edanda ta janari sendoa zanean eskuz.

Auzi bi izan nebazan eta, gero, andik Logroño, Madrid, Toledo ta Teruel aldera bialdu ninduen Franco'ren guda-gizonakaz.

—per da guda zoritxarreko aretatik a'ztu,ko ez doznna?

—Gauza asko, baña euretatariko bat espetxean egon eta gero Teruel-aldera bialdu ninduenen 18 illabetez, iltzera kondenatuakaz emondako orduak ez dira aiztuteko, ez orixe! An entzundakoa ta ikusitakoa... (1).

zagoz orain

—37 urte daroadaz kanpoan eta azkenengo amaseiak Puerto Rico'n.

—Zelan aurkitu dozu emengo giroa?

—Egia esan, ez dot astirik izan gaurko giroa ezagutzeko, sendia dala ta, adizkideak eta lagunak dirala ta, gaur Bilbo'n, biar Markiñan.

Ainbat erritara joateko esan dauste ta ez dakit leku guztietara elduko nazan.

Baña gauzatxo bat ikusi dot eta ez da nire gogokoa izan, 12-15 urte bitarteko neska-mutillak erretzen ikusi dodaz eta (naiz eta neuk asko erre) ori txarra da eurentzako, gizonago edo emakumeago dirala pentsatuko dabe gizajoak, baña ez dira konturatzen euren kalterako dala.

—Noiz Uric egongo zara gugaz?

—II onen 30'an abiatuko naz Puerto Rico'runtz, baña, laster zar-saria artuko dot eta ona etorriko naz biziteko.

Eskerrikasko Aita Benito, ondo joan eta ia laister gore artean zaitugun betiko.

Euskaldun barri



SAIBI - GAIÑEKO BURRUKA GOGORRA IZAN ZAN

(1) Urrengo zenbakian Aita Benitori Teruel-aldean jaiotako gauzak azalduko dautzueguz.

TXOMIN AGIRRE EUSKAL IRAULTZALLEA

Ainbat kartel ikusten dira gure errialdean iraultzari buruz.

Orrelako bateri hegira nengoala, adiskide batek, zirikatatu naiean eta bear ba da akulari be hai, belarrira esan eustan: Zuen Txomin Agirre'k ez eban here bizian berba ori erabiliko.

Ezetz?

Azkue'k diño bera odol gorria zala, gartsua, beti aurrerako. Eta Agirre osteria odol zurbil, bigun, makal, errez zalantzan edo ezpaian geratzen zana.

Ortik begiratuta ha dirudi ezetz.

Baiña Agirre ondarrutarra zan. Gogo eta biotzez. Eta zegaitik ez eban erabiliko berak guk sarri erabilten dogun berba bat, guk konturatu barik, eguneroko gauzetan erabilten dogun itz bat?

Ia egunero entzun al izaten dogu etxean, kalean, nai edonun: Alkondaria jirauletara jantzi dozu. Kaltzerdiak jirauletara darabizuz. Ikusgarri bat edo beste oker ikusten da jirauletara dago-lako...

Orra iraultza. Irauli, buelta emon, guk ondarrutarrok aspirasiño ta guztI esaten dogun berba: jirauleta.

Akulari askoren zeregiña cia zirikatzea, aitzakiak billatzea, nai ta norbera kcrizpean gelditu komeni danean edo bear danean.


Txomin Agirre'k, here zeregiñean, here doaie-tan, iraultza itza erabili bakarrik ez, benetako iraultza be egin eban. Txomin'eri abadetzan edo ta euskeran eskatu ieikioz kontuak. Abadetzako kontuak ez dira gureak. Baiña euskaldun lez, euskera kontuan Agirre'ren iraultzalle ckiña bere edozein lanetan ikusten da. Zer da besterik «Kresala», «Garoa», «Añemendiko lorea» eta abar idaztea, bere denporetan, erri euskera jator jatorrez, garbi garbi, bizi-bizi, orduan orrela idaztea ia pekatu zan denporan?

Bere kartak irakurtean, ainbat bidar ikusten dogu garbi zaletasuna aldeztuten.

Kontu euki, bera abade zala, eta geroago be, eleizetan dotriña crakurtean, asiera asieratik onela asten giñala: Jaun bat infinitamente poderoso, sabioa, justua, gauza guztien principioa eta fiña.

Eta orrela beste erantzueraz guztietan.

Orrelako giroan Txomin'en euskerak ez etc eban iraultzarik egin euskaldunen artean?



Euskaldun askorentzat iraultzako esan bear, esan nai eta agindua zorrotz eta garbi laga eban berak, bere zeregin eta ardura lez agertuten. ekiana: Eztogu erderazko itzik aotan erabili hear, esan gura doguna euskerazko itzakaz esan daikgunian.

Neugandik asita, ikasbide ori gogoratuko premia ba dogu euskaldunok.

Txomin'ek, ori, esan eta egin eban.

Nire adiskideari gogoratu nai dausat ori eta esan be bai: Ori, len eta gaur, euskaldunontzat eta euskera saillean iraultza ez ba da..., ondarrutarrok esaten dogun lez geu jirauletara bizi gare-lako izango da nunbait.

ERRIA TA UDALETXE GARBIKETEA

ERRIA

Cure ZER onetatik itaun au egingo neuke:

Erria zer da?

Ez da egongo gure izkuntzaren iztegian, esku-artearen edo agoTik ago larregi arabilliaz, geiago «koipeztu» dogun itzik!

Ezkerretik eskuetara, gure arteko alderdi ta taldeetako uztaiau, ez dago inor erriaren izenean berba egiten ez dauanik.; baina baten batzuk «narru. gorrian» dagozela igarteko ez da zuurregia izan bear: Auteskundearen erantzuna lekuko!

AUTESKUNDEA TA DEMOKRAZIA

Auteskundera aitatu dogu, baina ermen dago kakoa!

Askatasun-eske, demokrazia-eske, oiuka ta zarataka ibilli diran Galen batzuk, auteskundera e: da ezer, ez dan ezer esan. gura, diiioe orain. «Demokrazia burgesa»ren adar jote bat baino besterik ez ei da auteskundera!

Eurak agintaritzara eltzen diranean, ekarriko ei dabe benetako demokrazia, «herri-demokrazia», elezznorik eta olako alperreko oitura txarrik bear ez dauan «demokrazia».

* *

«HERRIA»REN IZENEAN

Zelan ori? ___itandu ezker, erantzuna laster entzungo dozu: «Herria» gen garalako!

Uriolak ba'dira, eurak «herria» ren izenean agertuko jat znz kalteen zuzentzaille.

Baso bat erreten ba'da, «Izerria»ren izenean kontuak eskatuko dira.

Jaiak egin gura ba'dozuc la «euren» Gaituen barik ba' zoaz, «herria»ren aurka zabiltz.

Txori batek goitik beera «zera» egiten ba'dautse, «burgesia» izango da errudun eta «herria»ren izenean kristonak entzungo dabez baten batzuk.

*

ERRIA GUZTIONA

Mutillak!

Erriari, edo erriaren izenari beintzat, bakean izteko ordua eldu dala uste dogu!

Lan katu la txakur bat edo lau txakur eta katu bat ez dira ERRIA, ez emen eta ez Singapur'en be.

«Dinamica de masas» dalakoaren jokoan eta ondo ikasita dagoan «metodo»agaz gauza guztiak egin gura dira «herria»ren izenean., Baiña, jaungoikoari eskerrak, Euskalerrria ez da e dozelako ERRIA.

*

AUTARKIAK NORTZUI?

Ur loietan «arrant zale», batzuk pozik ibiltzen dira, baiña gure urak geroago ta garbiago datoz, eta emendik aurrera bakoitzak jakingo dau nondik nora jo, nortzukaz eta nora arte.

Laster auteskundera izango ei dogu.

Betor ainbat lasterren!

Gizon eta emakume zintzo ta esku garbikoak aukeratu bear ko dogu., gure Udal-etxeak garbitzeko.

Ez da lan erreza izango, orain arte dagoan beste zimaaur eta pekorotz kentzea, baiña asi bear ko da.

AUZO-ALKARTEEN JOKOA

Udal-etxeak garbitzeko, auteskundera garbitik asi bear ko dogu.

Leku askotan sortu diran Auzo-Alkarteak, neurri Galen barruan baiño ezin aintzakotzat artu leikez.

Auzo osoaren ordezkari etc dira?

Ala auzoko talde batzun. ordezkari?

Erriagaz jazo dana her-Gera, auzo-alkarteakaz be jazo da.

Irurogei ta amar milla. biztanle dituan auzo Galen izenean, seireun bazkide dituan alkarte Batek berba egin ete leike?

* * *

ERRIA, AUTARKI-BIDEZ

Auzi onen epaille, ERRIA izango da.

Laster, autarki-bidez, erritar bakoitzak here eretxia emongo dan to ori izango da geienak edo maioriak zer gura dauan eta nortzuk agintari nai dituan jakiteko bidea.

AgoTik ago ta ormarik orma dabilen «herria»ren orde, bene-benetako. ERRIA agertuko da.

ARENAZA'tar Josu'k

BULTZI-BARRIAK

■

Laster, lengo F. V. Lagundiak bultzi barriak ipiñiko ditu.

Lengo egunean proba batzuk egin ebezan bultzi barriakaz.

Donostia'n asi ta Durango'raino burni-bide barria ipiñi dabe.

La Robla izeneko bultzia ilteko arriskuan dago.

Txarto dagozan gauzak konpontze-ko, 1.600 milloa bear ei dira.

s

Donosti'ren eta Bilbo'rei artean ibilliko diran bultzi barriak dirala ta, «anden» guztiak igon bear dabez.

Lengo bultzi zarrak mailla bi euzkezan, baiña oraingoak andcnaren parean joango dira.

— Fxartelen salneurriak igon egin dabe.

Len, esate baterako, Bilbo'tik Eibar 'era « pullman » irugarrencan 53 lauerleko kostatzen zan eta orain 70.

Korreok, barriz, 45 kostatzen ziran eta orain 55.

— Donosti ta Bilbo bitai tean ebillan



MARITXU TA ITXAS - ALDE.

«pullman» izeneko trenan kendu tgin dabe.

Orain arte sei bultzi izan doguz Donosti'Aa joateko, baiña « pullman » oneik kendu ondoren lau baino ez dira genditzen.

ZANGRONIZ'ek

LABUR - LABUR

BAKIO'KO JAIAN

Bakio'ko erri politcan, len zan politagoa, jaiak ospatu ziran dagonillaren 28'tik 31'ra.

Erriak ederto erantzun eutsoen antolatzaile jatorrai.

Jentetza ikaragarria izan zan pelotalekuan egun guztietan.

MARITXU ABIO'RI OMENALDIA

Gure cretxiz, zirkingarriena, Maritxu Abio'ri egindako omenaldia izan zan.

Ezagutzen ez dabeneztat, Maritxu Abio; Bakio'tarrentzat ivlaritxu Eleizalde'ko; erriarcentzat, Itxas-alde dantzataldearen amama dala, esan geinke.

Berak, jostun trebea izanik, sasoirik txarreanean, jantzirik geienak egin zitu; orregaitik, eta benetan maitc dabelako, Egin eutsoen len esandako omenaldia.

ZER onen irakurle da eta guk be zorionik beroenak emoten dautsaguz.

SONDIKA'KO EGAZKIN - ZELAIA

Barregarria, negargarria ez ba'litz, orain illebeta-inguru irakurri genduan albistea:

Ez ei da Sondika'ko egazkin-zelaia, aeroportua, egingo!

Ezin aztu doguz orain urte batzuk esandako itzak: «A mi no me quita el sueño».

Zen etc diño orain berba-lapiko arek?

Lo egiteko «pastilla'k» artzen ete ditu orain? Bestelakorik cz dogu ustel!

*

GOGORKERI BARIK

Askatasunaren ibilladi famatua amaitu zan, Jaungoikoari eskerrak, gogorkeri larregi barik.

Gero «matematikoak» buru-austerm, zenbat lagun izan etc ziran jakite o.

Zelako koloreko betaurrekoak, alako ta ainbeste eretxi!

Dana dala. asko izan ziran iruñara joandakoak: asko-joan cz ziranak be.

Batak besteari errespetatzen ikasteko izan ba'litz, txalotuko genduan, baiña... Donostia'n, irailaren 8'an, sortu zan burruka lotsagarria ikusi ondoren, gizatasunetik urrin gagozala uste dogu.

Nortzuk errudun?

«ZER» ZELAN?

ZER onen lenengo zenbaki biak arrera ona izan ei-dabe. Bigarrenak obea. Guztiak eta dana ulertzen ei dabe!

Orixe zan gure asmo ta elburu bat. Bete ba'dogu, zorionak geure buruari be! Zen arrai!

MUNEGAIN'ek

AITITA - AMAMAK NEGARREZ

Ez da arritzekoa, mundu onetan uric asko igaro dituenak negar egin eta tamala izatea.

Eurentzat ainbeste gauza iguingarri ta ncgargari ikusten dabez...!

Olako jazoerak ugari izaten dira, eta ez dago kentzeko ezelako almenik. Baiña ba dagoz jazoera batzuk ulermen argiaz eta naimen onaz kendu leikezenak. Oneitariko batzui buruz diardugu.

*

Joan dan udan sendi bat baserriko aita zar'aren etxera joan zan, oporraldia igaroteko asmoz eta aize ta eguzki argiaren billa, illebeta an igaroteko ustean.

Sendi ori, Bilbo'ko ikastetxe baten, nai ta nai ez, euskera batua ikasi-azo eutseen umeakaz joan zan.

Eldutakoan, asi ziran umeak euskera berba egiten, baiña aitita-amamak ezin aitu euskera ori! Tamalez eta negarrez geratu ziran, euren illobak ez ekielako eurak irakatsi eutsen antxiñako euskera eder eta polita.

EGILUZE

ERRIAK

ITXAROPENIK

ELORRIO'N?



ARGIÑETA'KO ILLARRIAK

IKUSPEGI EDER BAT

Elorrio'n, Argiñeta'ko illarriak baiño goratxoago aldapa-gaiñean; v1cndraka baserri-auzo-unea dago.

Andik bai ikusten dala ikusmira zoragarria!

An agiri da Elorrio'ko lautada, Anboto, Mc-mai'a, Udala, Iutxorta, Santamaina mendi ta atxak inguratuta... Eguzki-izpi argi ta beroak, uda-egun ederra dalako, milla motatako orlegiz cdertuten dauz baserri, mendi, baso ta zclaiak.

Andik agiri dira erriko etxeak or-emen jauregi arlanduzkoz eta baratz loretsu ta zugaitz cdergarritz inguratuta.

Danaren erdian, aundi ta tinko, Sorkunde Garbiaren eleiza nagusia erriaren zaindari, here Borre luze ta miragarritzko kanpaiak din-don-dan dotoreagaz lautada guztia beteten dabe ta eresi orren oiartzunak erantzuten dau mendi ta arroctan.

ELORRIO, ERRI EUSKALDUNA?

Erri au, nire umc aroan, guztiz cuskaiduna zan.

Bertara etorten ziran guardia ta maixu erdaldunen seme-alabak be bereala ikasten eben euskera, bertako guztiak euskerea erabilten gendualako.

Gerora, c.skola crdeldunaren bitartez, erdereas asko sartu zan.

Gaiñera batez be neskak, aundikiak erdera egiten ebelako (beste lantxo baten esaten neban lez) markes-antza eukitearren, erderara jo eben.

Azken urteotan, lanaren billa, erdal-erritik. Vlorderkada ikaragarriak etorri diralako, Elorrio'n erdcraz diarduenak, euskeraz diarduenak beste dirala esango neuke.

ERRIKO IDAZLEAK

Erri onek izan ditu euskal-idazle trebeak.

Lenengo ta bein, Berriotxoa'tar Balcndin zorunduna.

Bere ikastcak erdal-errian egin eta crdaldunakaz bizi arren, eta orduan euskeraz idazteko oitura gitxi izan arren, Kotxintxina'tik bere amari euskeraz idazten eutsan. Gauza ncketsua beretzat, benetan. Orrcgaitik euskaldunen artean goratua izan bear da.

Emengo erretore ia 40 artean izan zan Juan Izurrategi abadea, euskal-izlari ta idazlari bikaina zan eta euskalzalca izatearren espetxean il zan.

Emen bizi da, zorionez, Sabin A. Ariño, antzerkilari, ipuinlari, olerkari ta eresiari argia.

Bertan, baita, Kerexeta abadea, ia zeubatu ezin beste euskerazko idazti argitaldu dituana. Eta abar...

EUSKAL-ZALETASUNA BIZTUTEN

Esan leike, azken-aldian, euskal-zaletasuna biztuten asi dala, ikastolakin eta beste era askotara.

Erdaldun batzuk be ederto ikasi dabe euskerea.

Guzti oncintzat nire omen eta txalorik bcrocnak, batez be eleizeari.

Euskereak asko zor dautso eleizeari, geien baten gogo-artzaintzan euskerea erabilli daualako, baita eleizeak be euskereari, beronen bidez abadeak euren lana egin dabelako.

Erri guztia euskaldunduten danean, guztiz maitagarria izango da Elorrio, emengo mendi ta zclaiak be euskera dakie ta. Euskerea da emen erriaren jantzirik ederrena.

Itxartu cia ikastolea, gurasoak itxartuten asi dira: gaztc ta ume guziok, jarraitu euskerea ikasten eta landuten.

Ba dago itxaropenik oraiñdiño !

GALLASTEGI'tar Kauldi'k

BARRIRO, UNZUETA

ZER'en lenengo zenbakian Aita Santi'k aspaldion ixilik daukagun idazle on bat agertu euskun: Unzueta'tar Some.

Idaztearen ixiltasun onek min emoten eutsan, euskerea ain maite dauan eta ainbeste Ian gure euskerearen alde egin dauan aita Santi'ri.

Orregaitik, biotzez eskatzen eutson idazleari, barriro idazten asi daitela.

Berak margolaritzan diardu aspaldion. Andreiño erti-zalea benetan! Baiña entzun dau erregua eta Esturo'tar Jon'ek omenez, Vlendata'n 77'ko dagonillaren 25'e an egindako bertsoak bialdu dauskuz: Barru-min edo lirika-bertsoak, «elegia» tankerakoak.

Aurrerantzean be bialduko al ditu olako bertso irakurgarriak. Pozik argitaratuko doguz!

I

ARRATSALDE

*Mendi arteko gentza, bitxabal luzian,
Arratsalde onetan, belbillak ausia.
«Zer jazoten da, ama, ain beste belbilla
Astegun izanda? «ditantso mutillak.
Margo gustitako amaika ba dira
Baita bat da baltza, euren bitartian.
Beitu, beitu ama, beitu bere atzian
Lora zuri-gorritz, ze koro andia!»
Biarrak lagata, basetxen aurrian
Ain beste lagunak, ba dagoz begira.*

*

*Adarrak igitzen mendi piñudiak
Agurtuten dabe uzaban semia.
Ba darue, bai ba, baserri ildegira
Lurperatuteko, bertoko gaztia.*

* * *

*Estalgabetua itxi dabe kutxa.
Bertara eltzen dira erriko lagunak;
biotz bigundurik, legortzen malkuak,
itun eiten dautse azkeneko agurra.*

* * *

*Ai enetxue! da amaren oyua;
Bigunkiro urrundu seniden besuak.
Gatxa ziñeztu il-otzik dagola.
Esango leiteke artu daula loak.*

* * *

*Gero to andiago arratsen illuna...
Illegitik urten eta danak duan.*

*An bakar-bakarrik lotu da gorpua.
Ixil, illunetan, beratan artua,
Besarkatzen dau estu, betiko Ama Lurra.*

I I

BERBIZTU

*Itxasuak iruntzi dan eguzkia
Illunak dana betetzen dau gabian.
Txoriak zugatzetan ixildu dira.
Geldi-geldirik dagoz euren abian
Ezta ezer entzuten dana dan ilda;
Dana illunetan dago eriotz gerizpian.
Itxaropena ez galdu, laster goizian
Argituko da bar'iz zeru guztia.
Baita txio-txioka, barriz txoriak
Agurtuko dau alai egun sentia.*

* * *

*Gau illuna goiz argi, jaungoiko Altsuak
Egunoro bigurtzen dau bere almenaz.
Zuben biotzetatik uxatu itunak.
Bera'gan izan daigun itxaropena.*

* * *

*Lurperatuta, obian, dagon gorpua,
Berbiztuta egun baten agertuko da.
Goiko —Lagia beti zuzen betetu,
Alkartuta izan daigun zoriona.*

KONTU-KONTARI

ADAN

ETA EBA

BARRIAK

SENAR-EMAZTEAK

Ai, gure zoritxarreko Adan eta EGa! —esaten dogu sarritan.

Baiña Adan eta Eba'k ugari dagoz oraindiño gure etxeetan, ipuin onek diñonez.

Ume-bako senar emazteak ikazgintzan biziz ziran.

Ez jaken egunik be igaroten errita barik. Eta, irutalik bitan ez da olan izaten, senarra zan etxe aretako eztabaiden iturri.

MIXIÑOETAN

^11ixiño batzutan sartu jakon buruan, emakume batek ekarri euskula zori txarra..

Arrezkero EGa amaika bider aitatu bako egunik- ez egoan etre aretan:

—Aingeru ezpalaria ni izan ba'ninl, nik Eba ilgo neban eta kito!

—EGa! zorioneko ta txarreko EGa! zure ama be ba zeta ba! Berak bakarrik ez eban arek pekatu rik egingo, baiiza an eukan Adam kaltzaundi! Bata ikusgurakoa, tripaundi bete-eziña bestea, la, jakaña! sagarra azal eta guzti jan bear!

%

ERREGE EIZTARIA

Olan, entzun eta erantzun ebiltzala errege eiztari bat agertu jaken etxera eta esan eutsen:

Gizajo aundiok! zalozte neure jau regina!

Lotsa la ez lotsa, baiNa barrutik pozik, erregearen ostetik joan ziran.

jauregian sartu ziraneke, soiñeko ederrak jantziz eutsezan, lo-gela ederran sartu zituen eta jan-gelak aukeran ipini eutsezan.

JAUREGIAN

Senarra{: emazteari esan eutsen:

Mari! (au zan emaztearen izena) .Sarritan ekin dautzut EGa dala la ez dala, baiña neure ekiñari esker, gagoz orain emen, zer gura ta axe. Ostanizean zer? JVi, txondorrari ta zu lapiko mean putz eta putz!

%

KUTXATXUA

jauregiko morroi bat etorri jaken bein kutxa eder bategaz eta esan eutsen:

Errege jaunak emon daust zuentzako kutxatxu au, baiña inoz be ez zabaltzekolan. Osterantzean zuen zoriona galduko dozue.

—Peru! (au zan senarraren izena) Peru! —asi zan Mari— zer ele dago kutxa orren barruan?

--Begira gero, Mari! Ikuturik be ez egiozu egin gauza orreri!

Goiz - aldian, gosaldun ondoren, emaztea{: kutxea aitatu eban barrira. Esanaren esanez, zurilu eban here Peru: Batak a/mrtxu bat zabalduko eban, besteak begiratu.

Mari'k kutxari estalkia goratu eutsoneko, txirrist eginda, saguixu buztan-luzte bat urren zan eta gale senar emazteak arin larrilu ziran.

* w *

ERREGEA BEGIRA

E'regea, bitartean, arez hegira egoan eta gero olan esan eutsen:

zergaitik zalozte orren artega?

--jauna! —senar-emazteok lotsa gorritan— jauna! Arazo bakoak zertan edo atan denporea emon bear!

Erregea jatsi zan jauregitik, eura-kanatu, kutxa esketan artu, zabaldu, eta itandu eutsen:

Non dago barruko mutikoa?

PERU LARRI

Peru'k, naikoa larri, erantzun eutsan:

jauna! Ez da nine errua! .Nire emazte ikusguna ta nuntzebarri onek... !

EGa beti eGa! Eta Adan. beti Adan! ----esan eutsen erregeak.

GERO BARAGARRI

Erregeak alde egin eban, eta aurreko egunean etorritako errege-mutillak, urreraturik, esan eutsen:

Errege, nine jaunak, zuen soiñeko zarrok ekarteko esan daust. Eta jantziz eta zalozte zuen etxera, etorri / areen bidetik.

Eta senar-emazteak zazpil-zazpil jantzizta, txondorrari put z eta pulz emon ebezan euren il-arterainoko egunak.

ESTONBA'tar Mañuel'ek



Arana'tar Sabin'en bizitza-edesti onek iru zati ditu : Lenengoak, gure abertzaletasunaren maixu ta seaska danaren jaiotelekua adiazoten dauku.

Bigarrenak, bere barrua, oso-osoan agertzen dau, eta berau da naikoa idazti au irakurgarri egiteko.

Irugarrena bearrezko osagarri bat dogu, irakurle abertzalcarentzat emon leiteken gauzarik onena. Iraslearen eriotzatik gaur arte, gure abertzaletasunak izan ditun agerpenak dira. (Liburuaren sarre-ratik artuta).

38 urtekoa ziñala, eldua il ziñan. Sendoa zure gogoa, erasoan indartua. (Liburuaren eskintzatik).

Larrazabalcko ziña izan zanetik 74'garrcn urtean eta Euzko-Alderdi Jeltzalearen baimenagaz argitaratzen da liburu au.

BIOGRAFIA DE ARANA-GOIRI TAR SABIN E HISTORIA GRAFICA DEL NACIONALISMO

Ida lea: Xemein'dar Zeferino

Zarautz'en, 1977'an, eta 1935'en Bilbo'n egindakaoren antzekoa.

24 X 19 zm. 472 orrialde ta 300 irudi.

Narruzko azalagaz.

Salneurria: **2.500 pezeta.**



Colon de Larreategui, 11

424 11 74 Urrut.

BILBAO - 1


Ordain-ordez eta gaztu barik bialdu egidazuz ale BIOGRAFIA DE ARANA-GOIRI TAR SABIN liburuarenak, salneurria 2.500 pezeta dala.

Izena

Zuzenbidea

ZER

Colón de Larretégui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1



70 urte Bizkaiari laguntzen



CAJA DE AHORROS 
MUNICIPAL DE BILBAO

ONDO ERANTZUTEN DAU